

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Gordexolako Udala**

Langileen ordainsarien gaineko akordioa eta 3/2019 zenbakiko Aurrekontu aldaketarako Espedientea behin betiko onestea.

Gordexolako Udalak 2019ko otsailaren 28ko ohiko osoko bilkuran, honakoa onetsi zuen: 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, udal plantillaren 2019 ekitaldirako ordainsariak %2,25 igotzea, 2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko, sektore publikoaren esparruko ordainsarien alorrean presazko neurriak onetsi zituen abenduaren 21eko 24/2018 Legegintzako Errege Dekretuaren 3. bi artikuluan jasotzen den aukeraren arabera.

Halaber, hasieran onetsi zuen 2019rako udal aurrekontuarekin batera onetsi zen lanpostuen zerrendan agertzen diren berariazko osagarriak eta, ondorioz, hasieran onetsi zuen 03/2019 zenbakiko aurrekontu aldaketarako espedientea (Langileen eranskinaren Lanpostuen Zerrenda).

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Administrazioen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 15 artikuluan xedatutakoaren arabera, aurrekontua aldarazten espedientea hamabost egunez (15) jendaurrean egon da.

Epe horretan erreklamaziorik egon ez denez, aurrekontu aldaketa behin betiko onetsizat jotzen da.

2019ko otsailaren 28ko ohiko osoko bilkuran, 2019 ekitaldirako udal plantillaren ordainsariak igotzeari buruzko erabakia hartu eta 3/2019 zenbakidun aurrekontu aldaketaren espedientea onetsi zen (lanpostuen zerrendako osagarriak aldatzea). Erabaki horren xedapen zatia honakoa da:

«*Lehenengoa:* 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, udal plantillaren 2019 ekitaldirako ordainsariak %2,25 igotzea, 2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekiko, sektore publikoaren esparruko ordainsarien alorrean presazko neurriak onetsi zituen abenduaren 21eko 24/2018 Legegintzako Errege Dekretuaren 3. bi artikuluan biltzen den aukeraren arabera.

Bigarrena: Neurri hau ezartzearekin batera dagozkion doiketak egin behar dira, ordainsarien igoera hori gauden urteko urtarriletik ondorioak izan ditzan.

Hirugarrena: 2019ko udal aurrekontuarekin batera onartutako Lanpostuen zerrendan ageri diren Berariazko Osagarriak hasiera batez onestea.

Laugarrena: Hasiera batez onesteko erabakia izapidetzea, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 15. artikuluan eta bat datozenetan aurreikusitakoaren bat etorriz.»

Langileen eranskineko Lanpostuen zerrendan, aldaketa honen bidez egindako aldaketekin, honako hau da.

Gordexolan, 2019ko uztailaren 26an.— Alkatea, Ángela María Eguía Liñero



Zk. N.º	Lanpostuen zerrenda Relación de puestos de trabajo	F/L	Escala Escala	Taldea Grupo	Lanpostu mailako osagarria Complemento de destino	Beranzako osagarriak Complementos específicos	HE (04/2019 aurrekontu aldaketatik eratorritako P.L. (es incluyen los cambios derivados de la modificación presupuestaria 04/2019))	Derigoritasun data (04/2019 aurrekontu aldaketatik eratorritako aldaketak barne biltzen dira) F: preceptividad (es incluyen los cambios derivados de la modificación presupuestaria 04/2019)	HE SP	Oharrak Observaciones	Epoera Situación
1	Idazkari Kontu-Hartzailea Secretario Interventor	F	EG H.N.	A.1	26	27.741,00	4		Lehiaketa Concurso		Beteia Cubierta
2	Finantza administrazioan diplomaturia Diplomado en Admon Financiera	F	AB A.E.	A.2	22	26.617,57	3	1999	L-O C-O		Zerbitzu bereziak Bilertako funtzionarioa Servicios especiales Funcionario Interino
3	Kontu-hartzailetzako administrazioa Administrativo Intervención	F	AO A.G.	C.1	16	26.160,21	3		L-O C-O		Hutsik Vacante
4	Idazkartzako administrazioa Administrativo Secretaría	F	AO A.G.	C.1	16	28.367,88	3	2019/01/31	L-O C-O		Beteia Cubierta
5	Idazkartzako administrazioa Administrativo Secretaría	F	AO A.G.	C.1	16	22.473,73	3	2022/12/31	L-O C-O		Beteia Cubierta
6	Administratzaile laguntzailea Auxiliar Administrativo	F	AO A.G.	C.2	14	21.500,81	3	2019/01/31	L-O C-O		Beteia Cubierta
7	Kultur erexke eta liburulegiako arduraduna Responsable Casa de Cultura y Biblioteca	F	AB A.E.	C.1	16	22.473,73	3	1999	L-O C-O		Beteia Cubierta
8	Gizarte- eta kultura-supertzailea Animador Socio Cultural	F	AB A.E.	C.1	-	-	3	2000	L-O C-O	Lanaldi erdiz Media Jornada	Hutsik Vacante
9	Euskarara irakaslea eta itzultzailea Profesor Traductor Euskera	L	AB A.E.	C.1	16	11.236,87	4		L-O C-O	Lanaldi erdiz Media Jornada	Hutsik Vacante
10	Arduraduna Encargado	L		E	16	26.041,78	1		L-O C-O	B1 gidaibaimena Carnet B1	Hutsik Cubierta
11	Askoetaniko eginkizunetarako langilea Operario de servicios múltiples	L		E	12	16.373,34	1		L-O C-O	B1 gidaibaimena Carnet B1	Hutsik Cubierta

L-O: Lehiaketa-Oposizioa
C-O: Concurso-Oposición.

F: Funtzionarioa.

L: Lan kontratuko langilea.

L: Laboral.

AO: Administrazio Orokorra.

A.G.: Administración General.

AB: Administrazio Berezia.

A.E.: Administración Especial.

HE: Hizkuntza Eskakizuna.

PL: Perfil Lirio/Plasiko.

HE: Hornitzeko Era.

SP: Sistema de Provisión.